

## 20. ALDIZKARIA - 2017ko urtarrilaren 30a

### BOLETÍN Nº 14 - 18 de enero de 2024 (4.Art-en eta tarifaren aldaketa)

#### 15. ORDENANTZA FISKALA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

##### **OINARRIA**

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean ezarri da ordenantza honetako prezio publikoa.

##### **ZERGAPEKO EGINTZA**

2. artikulua. Zergapeko egintza da etxeko laguntza zerbitzua zuzenean ematea, Barañaingo Udalak arlo honi buruz onetsi duen ordenantza ez fiskalean ezarritako baldintzetan.

##### **SUBJEKTU PASIBOA**

3. artikulua. Subjektu pasiboak izanen dira 2. artikuluan azaldutako zerbitzuak eskatu eta erabiltzen dituzten pertsonak.

##### **PREZIO PUBLIKOA. TARIFEN SISTEMA**

4. artikulua.

Ahalmen ekonomikoa zehaztea. Errenta eta gastu kengarriak.

–Errenta:

PFEZaren zerga-oinarriaren batura, zati orokorra (507 laukia), gehi pentsio-osagarriagatiko diru-sarrerak (591, 5911, 5912 laukiak), gehi zati berezia (8.808 eta 8810 laukiak), gehi familia-unitatea osatzen duten pertsonen azken errenta-aitorpeneko PFEZetik salbuetsitako errentak (529 laukia).

–Gastu kengarriak:

Errenta dagokion ekitaldian ordaindutako zenbatekoak kenduko dira, jarraian adierazitako kontzeptuengatik.

Kuota pertsonal eta familiarretako kenkarien zerga-oinarriaren murrizketa: 1481 laukitxoa zati 823a (batez besteko karga-tasa). 1482 laukitxoko zenbatekoa 0 bada baina interesdunak frogatzen badu ordainketak egin dizkiola Gizarte Segurantzari (bere burua zaintzeko kontratatua duen pertsonaren kotizazioak direla-eta), zenbateko hori gastutzat joko da.

Kenkaria etxebizitzagatik:

Kenkaria etxebizitza alokairuan izateagatik: 092 laukitxoa.

Kenkaria etxebizitza erosteagatik: 975 laukitxoa.

Errenta-aitorpenean 092 edo 975 laukitxorik ez daukatenean, hobariaren onuradun izan nahi badute, agiri bidez frogatu beharko dituzte gastu horiek (alokairu kontratua eta ordainketaren egiaztatzea edo hipotekazko maileguaren ordainagiria).

Kenkaria, mendekotasunagatik arreta emateko gastuengatik:

Eguneko zentroa, garraioa, etxeko lanak egitea, eta beste batzuk (agiri bidez behar bezala frogatuta). Langileak kontratatuta baditu etxean, Gizarte Segurantzaren kostua apartatu honen

lehenengo puntuan sartuko da (1482 laukitxoa, zenbateko positiboa edo frogagiriak baditu). Horrenbestez, zilegi litzateke kontratatutako pertsonaren kostua beheititzea kotizazio hauen zenbatekoan.

Errenta-aitorpenean agertzen diren konpentsazio-pentsioak.

Errenta-aitorpena egiteko betebeharririk ez badu eta/edo egin ez badu, epai irmoa aurkeztu beharko du, kontzeptu horren zenbatekoa jasotzen duena.

–Hileko per capita errenta garbia:

Errenta ken gastu kengarriak, zati familia-unitateko kideen kopurua eta hamabi hilabeteren artean.

Erabiltzaileak ez badu PFEZaren aitortpena egiteko betebeharririk, aurreko ekitaldian izandako diru-sarreraren arabera zehaztuko da ahalmen ekonomikoa, eta horretarako dagozkion datu fiskalak aurkeztu behar dira.

Salbuespen gisa, zirkunstantzia pertsonalak edo soziosanitarioak direla-eta, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak egiaztatzen badu eskatzaileak zailtasun handiak dituela dokumentazio hori aurkezteko, eskatzaileak sinatutako zinpeko deklarazioa aurkeztuko du, dituen diru-sarrerei eta ondasunei buruzkoa.

### **PREZIO PUBLIKOEN SORTZAPENA**

5. artikulua. Tasak hilabete natural osoak bukatutakoan sortuko dira, subjektu pasiboa zerbitzua erabiltzetik gelditzen ez den bitartean. Hasierako edo azkeneko aldiak ez badatoz hilabete naturalekin bat, egun naturalen araberrako hainbanaketa eginen da.

6. artikulua. Aski ongi justifikatu eta baloraturiko inguruabar jakin eta bereziak direla bide, ikusten bada erabiltzaile batendako baremoa aplikatuzetik etortzen den tasa ordaintzea gehiegizko zama dela, zerbitzuko gizarte langileak proposatzen ahal du erabiltzailea diru-sarrera apalagokoen mailan sartzea edo tasa ordaintzetik salbuestea.

7. artikulua. Prezio publikoa hileroko ordainduko da, zerbitzuaren sorrarazpena izan eta hurrengo hilabeteko lehenbiziko bost eguneko epearen barnean eta horretarako ezartzen den moduan.

### **ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

8. artikulua. Arau-haustetzat hartuko da, tarifa tikiagoa izateko asmoz aurkezten diren agiri edo aitortpenak faltsutzea, baita Udalari ez jakinaraztea ere tarifen kalkulua egiteko kontuan hartu behar diren diru-sarrerak handitu direla.

9. artikulua. Egiten diren arau-hausteak Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoaren arabera zehatuko dira, eta erabiltzailea zerbitzutik kentzeraino heltzen ahalko da.

### **AZKEN XEDAPENAK**

Lehenbizikoa.–Ordenantza honetan aurreikusten ez den orotan, Toki Administrazioari buruzko Foru Legean eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean xedatuari jarraituko zaio.

Bigarrena.–Ordenantza fiskal honek Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean aurreikusitako tramiteak bete ondoan hartuko du indarra.

**ERRENTA MAILAREN TARTEAK****I. epigrafea.–Zuzeneko prestazioak.**

PCEG (Per Capita Errenta Garbia)  $\leq$  OAEAP (Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa)

OAEAP  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %105

OAEAParen %105  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %120

OAEAParen %120  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %135

OAEAParen %135  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %150

OAEAParen %150  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %165

OAEAParen %165  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %180

OAEAParen %180  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %195

PCEG  $>$  OAEAParen %195

**II. epigrafea.–Otordu zerbitzua.**

PCEG (Per Capita Errenta Garbia)  $\leq$  OAEAP (Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa)

OAEAP  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %105

OAEAParen %105  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %120

OAEAParen %120  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %135

OAEAParen %135  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %150

OAEAParen %150  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %165

OAEAParen %165  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %180

OAEAParen %180  $<$  PCEG  $\leq$  OAEAParen %195

PCEG  $>$  OAEAParen %195

**TARIFAREN ESKALA**

3 euroko tarifa finkoa, hilean

6 euroko tarifa finkoa, hilean

Prezio publikoaren %15

Prezio publikoaren %30

Prezio publikoaren %45

Prezio publikoaren %60

Prezio publikoaren %75

Prezio publikoaren %90

Prezio publikoa

2,20 euroko tarifa finkoa (menua)

Prezio publikoaren %40

Prezio publikoaren %60

Prezio publikoaren %80

Prezio publikoaren %100

Prezio publikoaren %110

Prezio publikoaren %120

Prezio publikoaren %130

Prezio publikoaren %140